

Abarrak

U N A I B R E A

Ukronia ukroniaren barruan = errealitatea?


The man in the high castle. Phillip K. Dick.
(Putnam, 1962). Hugo Sariaren irabazlea.

HAINBESTE GAUZA neukan leituta Phillip K. Dicken (1928-1982) obrari eta bizitzari buruz, *The man in the high castle* eleberraren erdira-edo ailegatu arte ez bainintzen ohartu bizitzan lehenbizikoz ari nintzela Dicken lan bat irakurtzen. Istorioaren konplexutasunak ukabilkada jo zidanean gertatu zen. Aurrez ikasitakoak ez nindukan prest egilearen jenialitate eta desoreka psikiko nahastea behar bezala digeritzeko.

Kritika, oro har, bat dator: hau da Chicagoko idazle emankorraren eleberririk onena. Are gehiago, ukronia generoaren aitzindaritzat joa izan da. Bigarren Mundu Gerraren garaileak Alemania eta Japonia izan ziren mundu bat aurkezten digu Dickek. AEBak, nobelaren gertakari guztien eszenatokia, hiru herrialdetan zatituta daude orain: mendebaldeko estatuak, Japoniaren menpe; ekialdekoak, nazien esku; eta erdian, Mendi Harritsuen Estatu autonomoak.

Egoera hori, baina, Dickek oso istorio konplexua, batzuetan ulertzeko gaitza, garatzeko erabili zuen eszenatokia baino ez da.

The man in the high castle-ko protagonista gehienek beste ukronia bat irakurri dute: *Otarraina pausatu egin da*. Bertan esaten da gerraren benetako irabazleak AEBak eta haren aliatuak izan zirela. Korapiloa are nahasiagoa da ordea: *Otarrainaren* egileak –bera da gazteluko gizona– *I ching* izeneko testu txinatarra, orakulu bat azken batean, erabili du bere eleberria idazteko. Dickek zioen berak ere *I ching*-en agindupean ondu zuela *The man in the high castle*. Liburuaren amaiera harrigarria gustuko ez zuela ere esan zuen. Ez dizuet kontatuko, baina bai azterna bat emango: Dickek uste zuen noizean behin elkartu egiten diren mundu paraleloz osatuta dagoela errealitatea. ■



publizitatea

40.000 ikasle ingurura heldu nahi da Helduen Euskalduntzearen 2011-2012 ikasturtean

Guztira 1.500 irakasle inguru ariko dira lanean 2011-2012 ikasturtean HABEk kudeatutako 105 euskaltegian. Matrikulazio epea itxi gabe dagoen arren, 40.000 ikasle inguru izatea espero du Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak.

Euskararen normalizaziorako bidean Helduen Euskalduntzeak berebiziko garrantzia duela azpimarratu du **Lurdes Auzmendi Hizkuntza Politikarako sailburuordeak**, eta horren baitan, euskaltegiek egiten duten lan itzela goraiatu du. "Hurbiltasuna, profesionaltasuna eta aukera aniztasuna". Hiru hitz horiek deskribatu du sailburuordeak euskaltegien –publikoen nahiz pribatuen– eguneroko jarduna: "Euskarari bultzada emateko euskaltegiek egiten duten lana ezinbestekoa eta goraiatzeko modukoa da. Eskerrak, beraz, egunero euskaltegietan buru-belarri lanean ari zareten guztioi".

Auzmendik adierazi du euskaltegi publikoak nahiz pri-

batuak ezinbesteko bitartekariak direla euskararen normalizaziorako: "Hori hala, guk gure esku dagoen guztia egin dugu helduen euskalduntzeak arrakasta izan dezan beharrezko baliabideak euskaltegien esku jartzeko, eta aurrera begira ere horretan jarraituko dugu".

Horren erakusle dira aurreko euskaltegiak diruz laguntzera bideratutako kopuruak. Izan ere, diru-laguntzak ez dira murriztuko: 2011-2012ra begira Euskaltegientzat 31.450.000 euroko diru-laguntzak emango dira. "Horrek esan nahi du diru-laguntzei eustea lortu dugula. Krisi ekonomiko garaian eta alderdi guztietatik murrizketak datozenean gogor borrokatu behar izan dugu Euskaltegietara bideratutako diru-laguntzei eusteko. Baina helduen euskalduntzea guretzat izatera estrategikoa duen gaia da, eta, beraz, aurrera begira ere ildo beretik laguntzen jarraituko dugu", nabarmendu du Auzmendik.



MUNDUORO
euskaraz